

NAFARROATIK IKERTZAILE

Egun ederrak ospatu genduzan Lizarra eta bere ingurutik Abenduko 12 eta 13'an, gure buruak askatzeko errukiaz Latxaga jaunak eta nik. A ta guzti be, gure maitasunezko gogapenak baztatu ezin eta lan egiteko elburuaz joan ginan; berak: gure artu-emonak idatz-lan baten, Diario de Nabarra aldizkarian, euskaraz argitaratzeko, eta nik ZER aldizkarian.

Goizeko 9'etan Donostitik urten gendun eta Nafarroarentza joan ginan, Arteta'ko erritxora ain zuzen, Gofi'ren mendartean kokatuta dagoana, Latxagak daukan adiskide-on Ullibarrena'tar Joxe ikustera. Ez zan egon bera, besperan gaxo-etxean ogeratu egin ebelako. Ni inguru-begira asi nintzan eta gauza ederrak ikusi nebazan lez Latxaga'ri itaundu neutson, ia zer esan-gura eban ango lan guztia euskeraz egiteak. Xixelari ona (escultor) dala bera eta euskaldun jatorra esan eustan; berak egindako lan asko

Mendebalean Oion (Araba), Moreta (Araba) eta Labraza; Egoaldean Ebro ibaiak eta errioxako Agonzillo'k inguratzen dabe. 78,7 kilometru lauki daukaz, eta 3.464 biztanle.

Biana'ra eldu ginanean, Antoñana'tarren etxean jo gendun atea eta berak zabaldu euskun. Arrituta geratu zan, Latxaga aurrez-aurre egon zanean; azkeneko artu-emona eta alkar ikustea 1972'an izan zan, eta ar-ezkerotik utzean geratu ziran, Latxaga Ameriketara joan zalako. Orduan, Latxagak idatz-lan bat argitu eban Xabier aipatuaz Diario de Nabarra aldizkarian, eta berak argitutako liburuan "NAFARROA, EUSKAL ARROBIA". Xabierren ustean, baleiteke naikoa zala guardia zibillak beren atzetik ibiltzeko jarraian, eta onek 1974'an atzerriratu egin bear eban, giltzapean ez egoteko, eta Kanal de la Mantxako deritxon JERSEY ugartera iges joan zan ain zuzen; an urte bat bete eban

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 74 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ren artean, bat, etxe aurrean eta etxe barruan (au, ikus-ezina gurentzat) euki ebana "MUSEO-ETNOLOGIKO" zala; bai artean Nafarroako abertzaleen bizitza eta izenak zurean xixelkatuta (grabados) daukazela.

Nik adarra jotearren: "Nafarroa au izan da.... Sanz buru?"

Lizarrarentza joan ginan, an Latxagak daukan bizi-lekura, gauzak itzi eta baskaltzeko.

ZER ALDIZKARIA

Arratsaldeko lauretan urten gendun Biana'ranta. Erri polita au, eta edestian oso zaarra dana. Bai garrantzi aundiko bizia euki dauana, eta gaur egun daukona Nafarroarentzat. Bultzakada aundia emotsena. VII Santxo Azkarra. orduan Nafarroako erregea zana, izan zan, gaztelotu eta onna aundiekin inguratuaz gotortu ebalako, baina batez be "BIANA'ko FORU'az edertu eta abcrastu ebalako; bai erriaren etorkizunerako, bai erregearen asmoak beteteko.

Gizon/emakume jakintsu eta indartsuak izan dira Bianak euki dauzenak, gaur egun be bardin, gero ikusiko dogun lez. Bat, argira ekartearren, or daukazue Nabarro eta Billoslada'tar Prantsizko "Amaya edo VIII gizaldiko Euskaldunak" liburu ederra iru atal-etan idatzi eta argitaratu ebana 1877'ko urtean (eta kontuan euki bear, SABINO'k 14 urte bakarrik zituala).

IBiana, mendi masa! baten ganean jesarrita dago; Iparraldean Agilar-Arronategi eta Aras; Ekialdean Borgota eta Mendabia;

eta gero etorri zan errira. Baina baleiteke be, idatz lanagaitik ez izatea, edo bakarrik ez izatea, orduko erritarrak "el bazkorro" izenez deitzen ebelako, euskal esnalea izategaitik; orren ardura-pean, beti bizi izan da zalantza baten gaur arte, jakin barik zein izan zan guarda-zibillaren gala bere atzetik ibiltzeko.

Antoñana'tar Xabier 1933'an Abustuko 11'n jaio zan. Madrildo ikastetxe-nagusian bete ebazan "Izkuntzak eta Albistaritza'ren" ikasketak. Bere alabak euskaraz ikasi eben, gaur elejakintzan (filologia) maixu egin direnak.

Latxagak itandu eutson ikastolaren azieragaitik, eta berak esan euskun, orrek itaunok, gaur diran irakasleai egiteko, euren ametsa biztuteko alaituaz batera. Guk baietza emonaz, Xabierrek esan euskun 1978'an asi zirela, eta 1983'an etxe aundi baten bealdeko tokia erosi ebala 800.000 pezetagaitik. Ikastolaren aziera oso gogorra izan zala esan euskun, baina gaur egun aldakuntza aundia dagola, diru asko irabazten dabelako erritarrak "Nafarroa Oiñez" ospatzen daben urteetan. Gaur, 100 ikasle daukaz ikastolak, eta orrek asko esan gura dau 3.464 biztanle daukan erritxo batentzako.

Latxagak itandu eutson: "eta zure emazteak zer dino arazo guzti orregaitik?"

Nire emaztea Abalos'tar M.' Jesus izendatzen da, eta ni baino gogorragoa da!, askotan berak bultzatzen nau.

ATUTXA'TAR PAUL
Zornotzan 1998'ko Abustu'ren 14'an